

HAUSNARKETA-OTOITZA: “Lan duina gizalegezko gizarterako”

1.- SARRERA:

Egunez egun egiaztatzen ari gara langabezia dela daukagun arazo nagusietako bat; izan ere, lanik egiten ez badugu, epe luzera, ezin dugu bizi. Baina azkenaldian ikusten ari gara ere pertsona batzuek lan ezegonkorrak bakarrik aurkitzen dituztela. «Bizitza kentzen ari zaizkigun» lanpostuak. Pertsona horiek lan egiten dute baina ez dute lortzen pobreziatik ateratzea. Izan ere, nolabaiteko duintasunez bizitzeko eta oinarrizko premiak asetzeko aukerarik ematen ez duten soldatak dituzte.

2.- ABESTIA: <https://soundcloud.com/manolocope/trabajo-digno-manolo-cope#t=0:00>

3.-HAUSNARKETARAKO:

Elizaren Irakasbide Sozialerako (EIS), lana giza existentziaren funtsezko dimentsio bat da. Lana ez da gizakiaz at dagoen zerbait, pertsonaren izateari berari lotuta dagoen gaitasun bat baizik. Gizakiak berezko du lana: “Lana gizakia gainerako izakietatik bereizten duen ezaugarrietako bat da (...) gizakiak bakarrik egin dezake lana, eta, aldi berean, gizakiak lanarekin betetzen du bere existentzia lurrean. Horrela bada, lanak gizakiaren eta gizateriaren ikur partikular bat darama bere baitan, pertsona aktiboaren ikurra pertsona-komunitate baten baitan: ikur horrek pertsonaren barne-ezaugarriak erabakitzen ditu eta, neurri batean, pertsonaren izaera osatzen du” (Joan Paulo II.a, Laborem Exercens, Sarrera).

Lana kapitalismoak hedatu duen ikusmoldetik aintzat hartu ohi dugu gizakiok, aldagai ekonomiko gisa ikusten dugu soldatapeko enpleguaren formatuan, eta asko kostatzen zaigu ulertzea benetan zer balio eta zentzu duen lanak gizakiarentzat eta bizimodu sozialerako.

Giza lanak balio ekonomiko handia du, baina hori baino askoz gehiago da: pertsonaren ondasun bat da, gai politiko oinarrizko eta funtsezko bat. Pertsonaren izatearen parte den zerbait da, eta halakotzat hartu behar litzateke beti. Lana da gizakiak bizitzeko behar dena ekoizteko erabiltzen dituen jarduera, baliabide, tresna eta tekniken multzoa, gizateriaren beharrei erantzuteko ondasunak eta zerbitzuak lortzeko erabiltzen duena.

Gizakiak lanaren bidez asetzen ditu bere beharrak, baina lana antolatzeke moduaren arabera betiere. Laneko tresnei eta antolaketari zein lanaren emaitzei dagokienez, badaude bi gauza oinarrizkoak eta funtsezkoak direnak: humanizatuko dute bizitzari eta elkartasun sozialari zerbitzatzeko planteatzen badira eta, batez ere, gizakiaren bokazioa gauzatzen lagunduko dute lana egiten duen pertsonaren lehentasuna kontuan hartuta antolatzen badira.

Lanaren jatorrizko zentzua aldatzen dugunean, gizakiaren izatearekiko eta bokazioarekiko lotura apurtzen dugunean, ondorioak oso larriak dira. Lanik ez dagoen lekuan ez dago duintasunik, eta hori tragedia hau dakarren sistema ekonomikoaren ondorioa da, sistema horrek diru deritzon idolo bat jartzen baitu gunean.

Lanak pertsonaren zerbitzura egon behar du, eta ez alderantziz. Inolaz ere ezin da justifikatu pertsonak produkzioaren eskakizunetara egokitu behar izatea, errentagarritasun ekonomikoaren ikuspuntutik bakarrik begiratuta. Lana pertsonaren ondasun bat da, lanaren bidez gizakiak natura eraldatzen duelako eta pertsona bera pertsonago egiten delako. Horregatik, lana antolatzeke garaian lana egingo duenaren errealizazio pertsonala sustatu behar da.

EISak azpimarratzen duenez, lanak dimentsio pertsonal, sozial eta familiar bat du. Lana pertsona batek egiten duen jarduera bat da eta, horregatik, balio eta duintasun handia du; hori aintzat hartu eta sustatu beharra dago lana antolatzekeo garaian: lanari egiten zaiona pertsonari egiten zaio.

Lana balio sozial bat da, kontuan hartuta pertsona ez dela gizabanako isolatu bat. Lanaren izaera soziala dela eta, pertsona humanizatzen du. Baina, gainera, lana eremu egokia da pertsonen ezaugarriak eta gaitasunak trukatzeko, elkartzeko, giza harremanetarako, etab. Zeregin komunitarioa eta elkartasun-eremua izatea dagokio.

Lana familiako balio bat da. EISak lanaren izaera hori azpimarratzen du, lana familiako bizitzaren oinarrietako bat baita, familia sortzea eta mantentzea ahalbidetzen baitu.

GALDERAK:

Zer egingo dugu, pertsonalki edo taldean, lanak gizakiaren errealizazioari begira duen garrantziaren berri emateko?

Lanaren aurrean jarduteko nire era berrikusiko dut:

- *Nire lanak gizaki bezala garatzeko aukera ematen dit?*
- *Familiako adinekoak, seme-alabak, etxea... zaintzen laguntzen didaten pertsonak baldin baditut. Zer baldintzatan lan egiten dute? Badute aukera pertsona bezala garatzeko?*
- *Ezagutzen ditudan erakundeek kontratatuta dituzten pertsonekin nola jokatzten duten berrikusiko dut.*

4.- BANATZEAREN ZEINUA:

Entzun dugun abestiaren esaldi bat ozenki errepikatzen dugu.

*Acoge, abraza, cuida, acompaña y lucha sin tregua
que a nadie falte trabajo, ni techo ni tierra.*

*Si lo tienes porque lo tienes, si no lo tienes porque lo quieres.
Si cada vez es más indecente y si es precario nadie, nadie lo merece.
Y si no “vales” te quieren descartar de un sistema que va robando la dignidad.
Trato, trabajo y sueldo digno para poder disfrutar
del sueño que Dios tiene para toda, toda la humanidad.
Para el de aquí o la de afuera, todas y todos somos clase obrera.*

**TRABAJO DIGNO PARA UNA SOCIEDAD DECENTE
TRABAJO DIGNO Y QUE VUELVA SONREÍR LA GENTE**

*No, no puede ser normal que haya tantos, tantas, con tanta precariedad.
Miremos bien lo que haya cambiar así lo injusto podremos desechar.
Si hay quien explota y maltrata solo se cambia poniéndole solidaridad.
No, por más que insistan, no hay nadie de usar y tirar.
Sí hay otra manera, otro modo de ser, vivir y trabajar.
Necesitamos este mundo humanizar junto a quien quiera para poderlo transformar.*

*TRABAJO DIGNO PARA UNA SOCIEDAD DECENTE
TRABAJO DIGNO Y QUE VUELVA SONREÍR LA GENTE*

*Estable y con derechos. Digno, que de techo. Que sea igualitario y nos haga solidarios.
Que integre a quien no pueda. Que aleje la miseria, defendiendo la justicia,
desterrando la pobreza. Por eso cantamos...*

<https://www.youtube.com/watch?v=gdco8gkxHKO>

5.-OTOITZA:

Ene Jainkoa, aldatu gure bihotza!

Jainkoak emondako duintasunez bizitzea galarazoten deutesen behin-behineko lanak, lan eskasak dabezanen alde.

Iraupen luzeko langabetuen alde, motibazino eta itxaropena izan eta bizimodu duinaren aldeko burrukan bakarrik ez dagozala sentitu daien.

Lan duinik ez daukien eta euren egitasmoak garatu ezin daikiezan gazteen alde.

Hurkotasunetik, errukitik... lagun egiten jakin daigun.

Beste batzukaz batera, pentsamoldez aldatzea eragin daigun...

Egitura eta erakundeak aldatzeko eta gizon eta emakume guztien, eta batez be behartsuen esanetara jartzeko burrukatu daigun.

Beste era bateko lana, ekonomia, mundua... egin daitekezala erakusten daben bestelako esperientziak eratu daiguzan.

Eleizak behartsuen aldeko zerbitzua lehenetsi daian barri ona iragarteko bide nagusitzat hartuz.

Zailtasunek ez deiguela animoa kendu senidetasun eta zuzentasunaren aldeko burrukan irauteko.